

EZKIO-ITSASO / Ezkio-Itsasoko udal liburutegiko irakurle eta izenpe txartela berriak eskugarri daude oraindik

Beste liburutegiekin kontsultak egin eta materiala eskuratzeko aukera dago

MIRYAM GALILEA/

EZKIO-ITSASO. DV. Orain direla bi hilabete gutxi gorabehera Ezkio-Itsasoko Udal Libutegia Eusko Jaurlaritzako sare baten barruan sartu zen eta harrezkero, sarean dauden liburutegi guztiekin harremana du, bai kontsultak egiteko, baita materialak eskuratzeko ere. Sare honetan sartzearekin batera liburutegi-txartel berriak eskuratzeko beharra agertu da eta hauek lortzeko asmoa duten herritarrek, liburutegitik pasa beharko dira.

Ezkio-Itsasoko liburutegiko erregistro zaharraren arabera, 191 herritarrek dute txartel zaharra, eta hauetatik, 29k irakurle txartel berriaren bila joan dira eta beste 11k izenpe txartelak eskatu dituzte. Beraz, liburutegitik pasa ez zareten guztiek eta bertako harpide izan nahi zaretenek, aukera aproposa duzue orain txartela eskuratzeko.

Esan bezala, bi aukera desberdin daude momentu honetan liburutegi txartelak lortzeko: lehenengo aukera, sarean dagoen edozein liburutegitan erabiltzeko irakurle-txartela izango da; hau, liburuak eskuratzeko, kontsultak beste liburutegiekin egiteko... balio du; lehen zegoen txartelak zituen baino abantai gehiago ditu. Bigarren aukera berriz, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskeintzen duten 'Izenpe' txartela da. Hau, sareko liburutegietan erabiltzeaz gain, Herri Administrazioekiko beste hainbat harremanetarako ere erabili ahal izango da.



Ezkio-Itsasoko liburutegian ekintza ugari antolatzen dira. [M. GALILEA]

Bai irakurle txartelak bai izenpe txartelak dituzten herritarrek, kode berezi bat izango dute bakoitzaren txartelan bertan. Adidunek beraien NAN zenbakia aurkituko dute bertan eta adin txikikoek berriz zenbaki arrunt bat. Kode hauek momentu honetan informatizatzen ari diren liburutegiko materialak etxera eramateko eta bestelako eginbeharrak bete ahal izateko balioko dute; horrela, txartela ordenagailuan konektatu bezain laster, pertsona horrek dituen liburuak ikusteko aukera egongo da eta dena azkarrago burutuko da.

Kode berri hauek Ezkio-Itsasoko liburutegiko material eta liburuetan pixkanaka pixkanaka jartzen ari dira. Horrela, lehen liburu bakoitzean zegoen papertxoan nork hartu duen apuntatu orde, kodea ordenagailutik pasatzearekin nahikoa da; dena txukunago eta errezago izango da guztientzat. Dena den, lan handia du liburu guztiei beraien kodea ipintzea eta bertako liburuazainak gogor ari du lanean hau lortzeko. Honetaz gain, orain txartel berrien bila joaten diren herritar guztiekin, datu-base berri eta informatizatu bat sortzen ari da.

Ekintzak

Ezkio-Itsasoko liburutegia, ia egunero irekitzen da herriko jendea liburua hartu, kontsultak egi edo talde-lanak burutzeko. Bertako ordutegia hau da: astelehenetan, arratsaldeko 5:30etatik 7:30tara; asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 6etatik 8 etara; eta larunbatetan, goizeko 10etatik ordu batetara.

Baina honetaz gain, ekintza ugari antolatzen dira herriko liburutegian, ia guztiak Yartu Kultur Elkartearen esku izaten direlarik: negu eta udako ludotekak, mota eta adin guztientzako ikastaro deberdinak, bilerak, antzerkiak, entsaioak, jokuak, umeentzako askariak...